

## Arratia Kantariren lehenengo edizinoa hilaren 9an Igorren

12. orrialdea

## Ortusantuak eta kalabazak

Zemendiaren hasieran Domu Santu eguna ospatuten dabe zaharrenak, atzen urteotan gazteak *Halloween* Ameriketatik hartutako hildakoen eguna ospatzen dabe mozarroak jantzita. Hildakoak gogoratzeko erritoak aldatu arren, heriotzearen inguruko festak mantentzen egiten dira. Angel Larrea historialariak sakondu dau gai honetan. 13. orrialdea



## Arratia nesken taldeak harrobi ona dauka

10. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 195

2013ko zemendiaren 1a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Erantzun zabala izan eban enplegu suntsiketearen kontrako itzalaldiak

**A**rratian Lan eta Bizi Plataformek deitutako mobilizazioak, -itzalaldia, alkarretaratzeak eta kotxe karabana, beste batzuen artean erantzun zabala izan eban Arratian. Izan be, bostehun lagun inguru bildu ziran zazpi herritan egindako konzentrazioetan. Deialdiak arlo politikotik, sindikaletik nahiz sozialetik jaso eban atxikimentua eta babesia.

Konzentrazioak Arantzazun eta Ubiden izan ezik, Arratiako beste herrietako plazetan egin ziran. "Arratiako etorkizune izitu deigun" pankartak zabaldua, sirena hotsa eta kandelen argitan egin eban protesta 500 bat lagunek. Ubiden "dana dala argiak amatau ziran" Udal iturrien arabera. Holan Arratian Lan eta Bizi Plataformek sano positibo baloratu dau enpleguaren suntsiketearen aurka deitutako itzalaldiak izandako erantzuna.

Eremu instituzionalean, Lemoa, Bedia eta Arteako Udaletan ordezkatuak dagozan talde guztiak, EAJ-PNV, Bildu, PSE eta Aldatuzek emon eban babesia, Diman Bilduk eta Igorren Bilduk eta Igorre Danontzat-ek. Lan munduan, ELA eta LAB sindikatuak eta enpresa batzorde askok emon eban atxikimentua. Eta hainbat eragile sozialek zein herritar kezkatuk parte hartu eban ia Arratia guztian egin ziran mobilizazioetan. 7. orrialdea



Zeanuriko konzentrazioa.

Argazkia: Irati Urien.

### ZEBERIO

## Baseri bi erre ziran Areiltza auzunean

Goikoetxea eta Auzkorta baserriak guztiz erre ziran urri bigarrenaren 22an Zeberioko Areiltza auzunean gertatutako sutean. Eguerdiko ordu bata eta laurdenetan hasi zan sua eta laurak arte egon ziran suhiltzaileak itzaltzen. Goikoetxean hasi zan sutea, eta ez zan inor momentu haretan baserrian. 5. orrialdea



### ARRATIA

## "Eman giltza" eta "201 baietz" euskerearen aldeko kanpainak abian

Euskerearen familia transmisioa sustatzeko Zeberio eta Lemoan "Eman giltza" kanpaina daukie martxan. Proiektuaren lehentasunezko helburua familia ze garrantzitsua dan euskerea belaunaldiz belaunaldi transmitiduteko zereginean nabarmentzea da. Diman ostera igazko "200 baietz" kanpaineari jarraipena emoteko Batzordea Euskera Eguneko "ekitaldi berezia" prestatzen dabil eta horretarako herritarren argazkiak aterako ditu hilaren 9an. 5. orrialdea

ARGAZKI LEHIAKETA

BIDALI ZURE ARGAZKIA  
ETA IRABAZI BI  
LAGUNTZAKO AFARI  
BAT!!

olaetxeoptika@hotmail.es

Olaetxe

### ARRATIA

## Mikologiaz berbetan

Perretxiko sasoi betean gagoz. Halanda be, eguraldiak ez dau perretxikotan joateko lagunduten eta zaleak mendira noz joan zain dagoz. Perretxikoak sano preziaduak dira jateko gurean. Bariedadea hainbestekoa izanda, batzuk jangarriak, beste batzuk ez eta batzuk hilgarriak be badiranez, jakinmin handia sortzean dau gaiak. BEGITU Estibaliz Sarrionandia EHUKo Botanika irakasleagaz egon da. Sarrionandiak onddo komunitateen inguruan egin eban tesia eta nabarmendu dau onddo eta perretxikoen garrantzi ekologikoa. 8. eta 9. orrialdeak



## UDAGOIENEN FRUTUAK (ASMAKIZUNAK)

A- Tamaina eta kolore guztietakoak dagoz, forma be xelebrea izan leike zenbaitek. Gure txarriak asko maite ditue, baita nire koinatak be.  
B- Jantzi berean bost edo sei garau sartzean dira, eta platerean eskukada bat. Aurreko gauean beratzen dira, eta jan eta hurrengo egunean puzkartzen dira.  
C- Ameriketatik etorri zan, eta

errotatik pasau eta gero zine aretoetan instalau da.  
D- Gorriak dagoz, beilegiak eta berdeak, besteak beste. Azal eta guzti jan daitekez, gordinik edo egosita. Eta hango adarraren puntaren puntan txoria dago kartari.  
E- Kanpoko azalak tindatzen dau, barruko azalak babesten dau, eta barruragoko mamiak indartzen

dau. Gure basoko mixerrak asko maite ditu, baita nire koinatak be.  
F- Neguko gau hotzetan, plazako bazter baten edo sukaldeko txapako labean, txipli-txapla erretzen dira.

Erantzunak:  
A- azabalak  
B- abab  
B- aotra  
D- arragas  
E- arruaxtni  
F- aniatzag

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**  
**Urri big. 28tik zemendiaren 3ra**

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

**22:00etatik 09:00etara**

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

**Zemendiaren 4tik 10era**

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

**22:00etatik 09:00etara**

Melero. Amorebieta-Etxano.

**Zemendiaren 11tik 17ra**

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18

**22:00etatik 09:00etara**

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan****22:00etatik 09:00etara**

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 90 10

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**

94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Trenak**

Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265****Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

**Otxandiotik urteerak:**

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Artea**

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

**Bilbo-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

**La Union\* 94 427 11 11****Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioarik ez dago.

**Babesleak:**

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Kudeatzailea:** Inigo Iruarrizaga.

**Erredakzino taldea:** Ainhoa Duñabeitia, Angel Larrea eta Irati Urien.

**Maketazinoa:** Inigo Iruarrizaga.

**Publizidatea:** Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Iratxe Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

**Tiradea:** 6.600 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

## Itzalaldia

### Kantari gazte bila

"Santa Zezilia  
Zezilia santa,  
boza emon eistazu  
kantetako da ta".

Hau abesten eben antxinakoak, batak besteari gaur baino gehiago entzuten eutsienez, antza. Santa Zezilia bertan daukagula eta Luis Iruarrizaga Abesbatzak badauka zer esan arratiarri: abestiak alaitu egiten dau (inoz tristetu be bai), bihotzak goratu, baita besteagaz alkartu... hori da helburua Luis Iruarrizaga Abesbatzarena.

Eta hemen Santa Zezilia inguruan Luis Iruarrizaga abesbatzak antolatutako Arratian izango diran musika ekitaldi batzuk: Vocalia taldearen emonaldia, zehazkiaren 23an, 20:00etan Igorreko Lasarte Aretoan eta "Bizitzaren errinetan" Arteako Umeak, Arratiako Musika Eskolako Abesbatzak eta Luis Iruarrizaga Abesbatzak Arteako Andra Mari eleizan hilaren 16an eta Igorreko Kultur Etxean hilaren 30ean.

Eta ezin dogu galdu aukerea ohar txo bat egiteko: Luis Iruarrizaga Abesbatza aspaldi dabil kantari eta kantariok zahartuz goaz, gazteagoen beharrean. Abestea eta ondo pasatea gustetan bajatu, zatoz Luis Iruarrizaga Abesbatzara.

LUIS IRUARRIZAGA ABESBATZA

ARRATIAGO ERNAI

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidun makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, berrik eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Iderra (idarra)



Abenduan, gure ortuetan gero eta gixiago ereiten dan landare goxo hau udabari amaiera aldean eta udan izaten da jateko puntu-puntu. Baina idarrak (iderra, agoskatuta) era askotara jaten dira (idar-patatak, idarrak pernilagaz...), izoztuta be bai. Eta beste gauza askotarako be erabili leitekez, berbarako: Ider-boltsea ipinten dot artosiak jota daukadan belanean! Euskera batuan ilar esaten jako. Azpimarratzekoak ei dira Getariako idar ospetsuak, txikiagoak eta finagoak diralako.

## ERETXIA

### Mondragon: krisiari aurre egiten deustan eredu bat

Munduko ekonomia baltzaka dabilanean, enpresa guztiak zailtasunak izan arren, eredu kooperatiboak "batasunak indarra egiten dau" axiomea funtsezkoa dala erakusten dau. Zentzu horretan, Mondragon Korporazioak mota guztietako neurriak hartu ditu (egutegi aldakorrak ipintea, aurrerakinak izoztea, egiturazko gastuak kontroletea, negozioai beste orientazio bat emotea, bazkideak beste kooperatiba batzuetara eroatea, aurre-jubilazioak...) enplegua mantentzen ahal izateko. Orain dala gitxi, Fagor Etxeresna Elektrikoak, taldeko lehenengo kooperatiba, hartzekodunen aurrekonkursoa aurkeztu eban ezin izan deustalako aurre egin Espainian eta European izandako etxeko tresna elektrikoaren merkaduan jauspen handiari. Egoera barri honen aurrean, korporazioak jakinarazo dau birkolokazioen eta aurre-jubilazioen bidez kudeatu gura dituala egoerak ekarri leikezan lanpostu-eszedenteak. Finean, taldean beti erabili diran alkartasun printzipioen balioetan eusten deustan konpromisoa da, orain be, Fagorrek kooperabistentzat urtenbide duina ahalbideratuko dauana.

Mondragon korporazioa, alkartasun konpromisoetan oinarritzen da eta bere zuzendaritzarako eta antolakuntzarako metodo demokratikoak erabilten ditu. Enpresen kudeaketea, emoitza eta jaubetzan personaren parte hartzea eta integrazioa bultzatzen dau korporazioak. Enpresa honek garapen sozial, enpresarial eta personala sustatzen dauan proiektu bateratzailea bultzatzen dabe. Persona eta teknologien ahalmenen garapenetik abiatuta, formazioa eta barrikuntza sus-

### ANDER BILBAO

BATZeko Kontseilu Errektoreko Presidentea

tatzen dabe eta Kudeaketa Eredu propioa erabilten dabe enpresok lidergoa lortzeako eta lankidetzeta sustatzeko.

Mondragon taldearen beste ezaugarri bat barrikuntzea da. Izan be, atzen urteotan barrikuntzea ondino gehiago bultzatzen saiatuten dabil. Holan, 2012an Industria Arloko salmenten % 20 produktu eta zerbitzu barriak ziran, orain 5 urte ez egozanak. I + G + B-n 160 milioe euroko inbersioa izan eban 2012an eta korporazioak 564 asmakizun patente familia ditu eta nazionarteko I + G-ko 91 proiektutan hartzatzen dau parte. Arlo honetan azpimarratu behar da Mondragon Unibertsitatea eta bere lau fakultadeen ekarpena (Ingeniaritza, Gizarte Zientziak, Enpresa Zientziak eta Gastronomia Zientziak "Basque Culinary Center"). Honek fakultadeonek, korporazioaren teknologia zentruen sarean dagoz eta guztira 15 zentru dira. Azpimarratzeko be bada kooperatiben euren ahalegin barritzailea.

Beraz, Mondragon taldeak eredu kooperatiboan daukan konfiantza osoa berresten dau. Personaren protagonismoan eta alkartasunean oinarritutako eredu kooperatiboaren balio garritasunari eta indarrari eusten deustso, eredu honek kooperatiben garapena ahalbideratu eta lankidetzeta arloan erreferente bihurtu dau Mondragon eta.

## LUMATUTEN

MAIALEN  
MADARIAGABakardadearen  
ezkutaleku

**E**rritual bilakatu da astelehen iluntzeko autobusa goiz iristea, justu nik hartu behar dodana, kasualidade itzela. Dagoeneko arazoa birplanteetan hasita nago: ez ete naz ni beti berandu dabilana? Oraingoan be ez deus den-porearen erritmo zurrinari lehia irabazi.

Gaurkoan haizea fin dabilala onarturik, markesinari babes eske joan natxako. Nire kontzientzia saltoka hasi da autobusa galtzean dauan bakarra ez nazala jabetzean, astegoineko nekeak protesta egin dauan arren.

Lehenengo bankuan erosketatik bueltan datorren andrea, sakelekoa belarrian pegaturik, aspaldiko lagunari zoriontzeko atxakiaz, barbaro hutsa. Begira beste gizon hori be, planta dotoreari muzin egin barik musika entzungailua kukuka dabil esku

finen artetik, kaskoak ordea ez dira inon ageri. Han neska gaztea, unibersidadeko liburuak magalean eta atzamarrak prest behin eta berriro *whatsapp* dauan ziurtatuz.

Beste norbait be badator. Zuzen begiratu deusat andra gazteari, narruzko boltsatik zer aterako jakinminez. Ez ba, han gengoza-nak agurtu eta geldi geratu da ingurura begira, lasaitasun usaina dariola, pozik. Ez dau zirkinik be egiten, sabelean daroan haurra laztantzeko ez bada. Zer pentsa eragin deusta bere jarkerak. Zoriontsu dirudi. Bildurra arrotza jakola emoten dau. Behintzat bakardadearen aurrean ez da kikitzen, ez autobusaren esperoan sentiduten dan bakardadeagaz sikiera. Badaki isiltasunean etxoten. Inbidiak kuku egin deusta.

Ez dot ezagutzen bakardadearen freskurea sentidutea gustetan jakon inor, gitxiago inork holan ikustea. Geraleku haretan horren isla. Beraz, kalean inoren esperoan gagozan aldiro mugikorra gertu, planta egiteko sikiera.

Akaso andra hura be izu horren atzaparren menpe biziko da eta berak be eukiko dau armaren bat isiltasunaren hutsunea estaltzeko. Haurtxoak sabelean emoten deusazan golpetxoak behar bada. Azken finean, nor ez deus to errespetua bakardadeari?

## ZERTZEAN



SAIOA LARREA



## BEGI TXINDORRA

**U**dagoiena heldu da, baina berau etorri baino lehen heldu dira aurten gaztainak. Hego-haize zakarra, 23° C inguru, eta ondino manga motzetan gengoza hasi gara aurten gaztainak erretzen, txipli-txapla pun!

Atzanean hego-haizea be gelditu egin da, egunak laburtu egin dira eta hondartzari agur esan deusagu datorren urtera arte. Basotik ibilteko momentua da orain. Urte sasoi honetan basoak edertasunaren gailurrean dagoz eta urre kolorea hartzean dabe pagadi eta harestiak; eta basoak euren frutu gozoak, gaztainak eta perretxikoak, eskeintzen deuskuez patxadaz bertatik ibiltzen garanoi.

Heldu da udagoien gozoa eta gu, gozo-gozo udagoiengan.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia

Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bilakaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegatu Zirkulu 101  
R.P.S. 21/06

**FISIOTERAPIA** Grupo SasoiBide  
Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago  
COL. 1718

www.gruposasoiBide.com Tel.: 94 657 54 50

## ZEBERIO

# Egiturea erreta daukie Areiltza auzunean erretako baserriak

Areiltza auzuneko Goikoetxea eta Auzkorta baserriak "gutziz kiskali" egin ziran urri bigarrenaren 22an.

### Erredakzioa

Eguerdiko ordu bata eta laurdenetan hasi zan sua eta arrastiko laurak arte egon ziran suhiltzailak itzaltzen. Suhiltzailak batek zauriak izan zituan gas bonbona bat lehertu zanean. Suak baserri bi honeen "estruktura osoa" erre eban.

Goikoetxean hasi zan sutea, eta han ez zan inor momentu haretan. Ondoko etxean, Auzkorta baserrian, 80 urtetik gorako andragizonak eta andrearen osaba 103 urtekoa bizi dira. Sutea hasi zanean etxean egozan "auzoko

batek atera zituan etxetik. Hor edade handiko jentea bizi da eta batez be 103 urtekoak laguntza behar dau urteteko. Auzokoak konturatu ziran eta laster atera eben" azaldu deutso BEGITURI Zeberioko bizilagun batek.

Bizilagunak onik atera baziran be, suhiltzailak bat zaurituta subertau zan. Golpeak eta erredurak izan zituan bonbona bat lehertu zanean eta Gurutzetako erietxera eroan eben. Segurtasun Sailak adierazotakoaren arabera, bere egoera ez zan larria.

Suhiltzailak hainbat talde egon ziran beharrean, "bost kamioi arunt eta eskaladun beste bi"

lekuko baten arabera. Sua amatautakoan, erreten bat geratu zan bertan sua barriro biztu ez eiten.

### Kalte handiak etxeetan

Goikoetxea eta Auzkorta baserriak "erre dira gutziz biak. Estruktura osoa daukie erreta" Zeberioko aguazilak BEGITURI jakitera emon eutsanaren arabera. Eta barrukoak be dana erre zala esan eban, altzariak zein bertan bizi ziran gauza guztiak. Orain, Auzkorta familiako baten etxera aldatu dira, Zeberiotik kanpo.

Dana dala, etxeak zelan geratu diran ikusita, bertan bizi ziranak



Suhiltzailak beharrean Areiltza auzunean.

onik atera ziralak jakitean, lasaitua hartu eben zeberioztarrak. Izan be, egun haretako hego-haize zakarrak asko lagundu eban sua zabaltzen. "Zorionez, egunez izan

zan eta ez gaubez; eta haizeak gero ekialderantz jo eban, bestela kalteak ondino handiagoak izan eitekezan" dinoe Zeberioko bizilagunak.

## LEMOA / ZEBERIO

# Euskerearen familia transmisioa sustatzeko "Eman giltza" kanpainan hartzean dabe parte Lemoa eta Zeberio

Alkarbide foro teknikoak koordinatu dau kanpaina hau, eta, bertan, lurraldeko 54 erakundek, 2 mankomunidadek eta 39 udalerrik hartzean dabe parte, Lemoa eta Zeberio tartean.

### Erredakzioa

Zeberio eta Lemoa tartean. Proiektuaren lehentasunezko helburua familia ze garrantzitsua dan euskera belaunaldiz belaunaldi transmitiduteko zereginen nabarmentzea da.

Kanpaina jaiobarrien gurasoak dago zuzenduta. Guraso honek "ekimenaren gaineko informazioa emoten dauan alkatearen

gutun bat jasoko dabe, autorako pegatinak eta Ku-ku gidak" Jon Bollar Zeberioko Euskera Teknikariak BEGITURI jakitera emondakoaren arabera. Gida honetan euskera berbak, esapideak eta kantak jasoten dira. Zeberion, 2013an jaiobarriak euki dabezan lau familiak jasoko dabe material hau umeak euskeraz egiteko animetako.

Telebistan emoten dabizen

sustapen bideoa be aurkeztu dabe Zeberion, euskerearen familia barruko transmisioa bultzatzeko.

### Lemoan urte birik behin

Lemoan, barriz, "Eman giltza" kanpaina urte birik behin egitea ebatzi zan Udalean. "Aurten bestelako dinamikak daukaguz abian familia transmisioari begira. Lan talde bat daukagu eta ber-

tatik bideratzen doguz hizkuntza eta familia buztartzen dituen erroka eta zailtasunak" azaldu deutso BEGITURI Miren Madariaga Lemoako Euskera Teknikariak. Holan magia ikastaroa antolatu dabe 8-12 urte bitartekoak aisialdian euskera erabilteko. Guraso euskaldunak zuzenduta, Paula Kasaresek "Zuek daukazue giltza" berbaldia emongo dau eta euskaldunak ez diranai "Euskera,



Kanpainako kartela.

entra un idioma en casa" zehazkiaren 21ean. "Euskeraz olgetan familian" izeneko ekimena be abian da 2-3 urteko ume eta euren gurasoentzat.

## DIMA

# Herritarrai argazkiak aterako deutseez Euskerearen Eguneko ekitaldirako

### Erredakzioa

Igazko "200 baietz" euskerearen aldeko kanpainari jarraipena emoteko, Dimako Euskera Batzordeak "201 baietz" kanpaina ipini dau abian. Batzordea Euskera Eguneko "ekitaldi berezia"

prestatzen dabil eta horretarako herritarren argazkiak aterako ditue hilaren 9an, goizean, ludotekan.

Herritarrek, familiak, auzokoak, lagun kuadrilak, alkarteak eta abar parte hartzea gura dabe antolatzaileak. Jentea pilatu ez daiten, auzune bakotxari ordu bat



Igazko "200 baietz" kanpainako ekitaldia. Argazkia: Berna Gomez.

ipini deusie. Holan 09:00etan, Artaun eta Biteriñoko bizilagunak dagoz deituta; 09:30ean, Bentatxuri, Indusi eta Makaztuikoak;

10:00etan, Ziarrusta, Santuru eta Artzubikoak; 10:30etan, Muneta eta Olazabalgok; 11:00etan, Aroztegieta eta Lamindaok;

11:30ean, Atutx eta Obakoak; 12:00etan, Amantegi eta Bikarregok; 12:30ean, Plazea, Ibarra eta Bengoetxekok; 13:00etan, San Balentin, Artabe eta Elezatuok eta 13:30ean, Bargondia eta Baltzolok.



## DIMA

**Autoestimurako gakoetz jabetzeko ikastaroa eratuko dabe****Erredakzioa**

"Andren autonomiarako eta autoestimurako gakoak" izeneko ikastaroa emongo dau Berdineskolako Irati Arrillagak zemendian Dimako KZgunean. Ikastaroa andrai dago zuzenduta eta lidergoaren gakoak emotea dauka helburu. Udaleko bardintasun mahaitxoak antolatu dau, Bizkaiko Foru Aldundia, Eudel eta Emakunderen babesagaz.

Eskolak zemendiaren 11, 12, 18, 19 eta 26an izango dira, arrastiko seiretatik zortziretara, Berdineskolaren eskutik. Berdineskola, Bizkaiko 5.000 biztanle baino gitxiagoko udalerrietan bardintasuna bultzatzeko martxan ipinitako eskolea da.

Izena kultura.dima@bizkaia.org helbide elektronikora idatzita edo udaletxera deituta emon daiteke. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da eta ikastaroa doban da.

## LEMOA



Frutu eta ortuariak.

**Gorbeia aldeko produktuak erakutsiko dira Lemoako azokan****Erredakzioa**

Udalak eta Gorbeialdek antolatu dabe aurten Lemoako XIV. Elikagaien Azokea. Izan be, murrizketak dirala eta, BBK-k ez dauz postuak ipinten eta azokea mantenu ahal izateko Gorbeialdek lagundu dau antolakuntzan. Hamasei hamazortzi erakusmahai egongo dira aurten, Araba eta Bizkaiko Gorbeia inguruko ekoizleak, euren produktuak erakutsi eta saldu dagiezan. Zemendiaren 10ean izango da azoka hau, Elizondo auzunean, futbol zelaiaren ondoan.

Igaz baino produktore gitxiago egongo dira aurten Lemoan. BBK-k murrizketak egin ditu eta murrizketa horreen ondorioz, azoka batzuetan postu gitxiago ipinten ditu, eta beste batzuetan bape be ez. Bertako ekoizleak azoka hau galdu ez dagien, Gorbeialdek an-

tolakuntzan parte hartu dau. Hata guzti be, igaz baino postu gitxiago egongo dira aurten. "Igaz 25 postu egon ziran, horreetatik sei Gorbeialdeko ekoizleenak ziran. Aurten hamasei edo hamazortzi izango dira. Ziurtatuta daukaguzan hamaseiak Gorbeialdekoak" azaldu deutso BEGITURI Bingen Larizgoitia Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartearen arduradunak.

Lemoako azokan, ogia, txakolina, gaztaia eta bertako beste produktu gozo asko egongo dira salgai.

**Perretxiko erakusketea**

Azokan, erakusketa mikologikoa be egongo da eta han erakutsiko dira Ganzabal Mendi Taldekoak batutako perretxikoak, mikologoak sailkatuta eta bakotxaren gaineko oinarriko informazioa emonaz. Ordubatik aldera, Arratiako Musika Eskolakoak trikia joko dabe giroa alaitzeko.

## IGORRE

**Udalak gizarte larrialdietarako udal laguntzak arautzen dituan ordenantzea onartu dau****Erredakzioa**

Ordenantza hau urri bigarrenaren 7an onartu zan ago batez. Abenduan sartuko da indarrean

eta hemezortzi mila euroko diru partidea izango dau. Prestazio ekonomiko honek baliabiderik ez daukien eta arrisku faktoreak daukiezan familia unidade edo per-

sona indibidualentzat dira, gizarte bazterketa egoerak sailhesteko oinarriko gastuak aurre egiteko.

Elikagaiak, erropak eta farmaziako gastuak, beste batzuen artean, jotzen dira oinarriko gastutzat. Etxebizitza alokatzeko fidantzak, genero indarkeria, etxegabeteak eta premina bereziko beste egoera batzuk be aitutzen dira ordenantzan.

Eskatzaileak bete beharreko baldintzen artean dago gitxienez hiru urte Igorren erroldatuta eta langabeen kasuan Lanbiden izena emonda egotea.

## ARRATIA

**Dima eta Igorreko Herriko Tabernen kontrako prozedimentua hasi dabe****Erredakzioa**

Dimako Jentilzubi eta Igorreko Axular Herriko Tabernak Audiencia Naziolaren zitazioak jaso zituen epaiketan aurkezteko. Urri bigarrenaren 17an hasi zan

35/02 auziko epaiketea. Bertan, 40 lagun eta 110 herriko taberna eta alkarte dagoz epaitzeko, tartean Dima eta Igorrekoak, herriko tabernen bitartez ETA finantzatzen zala egotzita. Dima eta Igorreko Herriko Tabernetako

ordezkariak izan dira Madrilgo Audiencia auzi saio bitan eta ez dakie barriro joan behar izango daben ala ez.

Epaiaketa honek arriskuan ipinten dau Igorreko eta Dimako Herriko Tabernen etorkizuna. "Ipuin bat asmatu eben orain dala 11 urte eta ez dauka hankarik ez bururik. Zelan izan leike, geuk jakin barik, nonok egin ete dauan zeozegaitik Herrikoen jaubetza barik gelditu ahal izatea danon aurrean modu garbian lanean ibili eta gero?" dino Albaro Legarreta Axular Herriko Tabernako ordezkariak.

## DIMA

**Zerbitzua handitzeko boluntario bila liburutegian****Erredakzioa**

Dimako Herri Liburutegiak urri bigarrenaren hasieran edegi zituan ateak boluntarioen laguntzeagaz. Aurten, ordubete gehiago egoteko aukerea izatea gura dabe eta ikasgela be egongo da zabalik 08:00etatik 22:00etara. Liburutegia astelehenetik barikura dago zabalik 16:30etik 19:30era eta zapatuetan 11:00etatik 13:00etara.

Boluntarioak hilean egun batez, hau da, hiru orduz, jarduten dabe liburuzain lanetan. Lagundu gura dabenak dimekoliburutegia@

gmail.com helbidera bialdu behar dabe mezu bat, ondo jatorkien eguna zehaztuz. Liburutegiko espazioa ordutegitik kanpo erabili gura dabenai txartela emongo jakie ikasgelara sartu ahal izateko.

**Kultura sustatzeko ekintzak**

Liburutegien eginbeharra ez da bakarrik liburuak maileguan ixtea: kultura espazioak dira liburutegiak. Hori dala eta, dinamizazio talde bat be badago Dimako Herri Liburutegian eta ekimenak antolatzen hasi dira. Lehenengoak, liburutruk eta poesia kantaldia izan ziran, liburutegien egunean.



Poeta madarikatuak.

Argazkia: Gillen Garcia.

## ARRATIA

**Inkestea****Erredakzioa**

Denpora faltaz kejetan gara behin eta barriro. Estresa, ansiedadea, eta beste gaixotasun asko sufriduten doguz "denporea galtzean" ez dakigulako. Horregaitik oraingoan jakin gura izan dogu zenbat denpora eskeintzen deutzazun ondo paseteaz beste probetxurik ez dakarren aktibidade bateri astein. Hau da, zenbat denpora emoten dozu, inork agindu ez eta zeure lanagaz zerikusirik ez daukan liburu bat irakurten, umeak zaindu barik lagunakaz kafea hartzean, kirola egiten, baina gustetan jatzulako soil-soilik eta ez mitxelina kentezako...

Beraz, hauxe da hile honetako itauna: Zenbat denpora emoten dozu astein kalidadeko aisialdian? (hau da, lanagaz ez nahastutako aisialdian?). Erantzun posibleak honek dira: ordu bi baino gitxiago, bi eta lau ordu bitartean, lau ordu baino gehiago.

**Alemaniar joateko prest**

Aurreko itaunari erantzun deutzien BEGUREN irakurleak, lan barik egon eta uruti baten lana topau ezker, ago batez esan dabe lana hartuko leukiela.

## ARRATIA

# Enplegu suntsiketearen kontrako mobilizazioak arrakasta handia izan dabe

Urri bigarrenaren 30ean, ordu erdiz, 19:30etik 20:00etara, argi elektrikoak itzali eta kandelen argitan egindako konzentrazioetan, 500 bat lagunek hartu eben parte Arratiako 7 herritan, Arratian Lan eta Bizi Plataformeak jakitera emon dauanaren arabera. Herri batzuetan argiteri publikoa be amatau zan.



Konzentrazioa batutako herritar bat. Argazkia: Irati Urien.

### Erredakzioa

Kotxe karabana, itzalaldia eta konzentrazioak egin ziran Arratiako herri guztietan, Arantzazun eta Ubiden izan ezik, enpleguaren alde urri bigarrenaren 30ean.

"Arratieko etorkizune izitu deigun" pankartak zabaldua, sirena hotsa be ibili zan konzentrazioen inguruan. Bezperan, Incoesatik abiatuta kotxe karabana batek emon eutsan hasikerea Arratian Lan eta Bizi Plataformeak antolatutako mobilizazioak enplegu suntsiketearen kontra protesta egiteko.



Bedian egindako konzentrazioa Alfus eta Incoesako langileak be batu ziran.

Itzaladiagaz lotutako ekintzak bezperan hasi ziran. Izan be, egun horretan, 20 kotxe inguruko karabana ibili zan Arratiatik, bertan bizi dan enplegu suntsiketea salatuten. Incoesatik Zeanuriraino, Zeanuritik Dimara eta Dimatik Bediarako biga egin eben.

"Arratian Lan eta Bizi Plataformatik gogorazoz gura izan dogu deialdia arrakastatsu honen ostetik oraindino asko geratzen dala egiteko, oraindino hor dagozala Alfus eta Incoesako gatazkak, Arratian mila lagun baino gehiago dagozala langabezian, eta soilik eredu sozial eta ekonomiko barri batek bertutuko deuskula egoerari bueltea emotea". Hori lortzeako bestelako politika ekonomikoak egiten hasi beharra dagoala aldarrikatzen dabe plataformatik, eta dei egiten dabe alternatiba horren alde beharrian eta mobilizetan jarraituteko.

### Incoesa eta Alfus-en burrukeak jarraituten dau

Alfus eta Incoesako beharginak euren burrukea eroan eben Bediako konzentrazioan.

Alfusen ez dagoala mobimenturik enpresearen aldetik azaldu eutsan BEGURI Gaizka Belaustegiogitia Alfuseko beharginak "gu etxoten gabiz, mahaian jarri daitezana. Epaileak esan eban berronarketak egon behar dirala eta 16tik 4 kaleratze baino ez dirala izango eta ordutik hona ez da mobimenturik egon". Burrukea danak onartu arte "edo gitxienez enpresea mahaian jarri eta negoziatzinon hasi arte" izango da. Izan be, Alfusen burrukea lan baldintzaitik hasi zan eta horreek be aldarrikatzen ditue Alfuseko beharginak.

Incoesan, barriz, enpresearen aldetik mahai gainean dagoan proposamena da kalean gertzen diranentzat lan egindako urte baktzeko 30 eguneko ordaina 18 hilabete topea izanda, ala Soria edo Caceresera beharrera joatea. "Ez dogu sinatu, ze hori Bediako Incoesa zarratutea da" azaldu eban Juan Cruz Yurrebaso Incoesako beharginak.

Konzentrazioen egunean zenbait bilkura egin ebezan GEA Iberica, Forjas Unidas eta Tecnichapa enpresetan beharginak lantegi atarrietan, eta "horreetako askotan itzalaldia be" egin eben.

## IGORRE

# AMEk abentura ekintzak zozketatuko ditu



### Erredakzioa

Arratiako Merkatarien Elkarteak (AME) sei abentura ekintza zozketatuko ditu zemendiaren 19an. Parte hartzeako nahikoa da erosketa tiketaren atzean izena eta telefonoa ipintea eta komertzioan bertan ixtea. Zozketea hilaren 19an izango da Igorreko jubilatuen txokoa.

Sei sari egongo dira eta baktak abentura ekintza bat aukeratu ahal izango dau. Aukeratu daitezkean artean, urpekaritza, globoan ibiltzea, ferrari bat gidatzea, piraguismoa egitea, uri bat ezagutzea edo puenting-a egitea. Saridunak berari gehien gustetan jakona aukeratu ahal izango dau aukera zabal baten artean.

### Abenduan erlajazioa

Oraingoan abentura bada, abenduen lehenengo hamabostaldian beste zozketa bat egingo dabe AMEkoak euren bezeroen artean. Bigarren honetan, erlajatzeko izango dira bananduko dituen sariak.

**ZOZKETA**  
arratiako merkatarien elkarte

**Etorri AMErekin abenturan !!!**



 urpekaritza egitea	 globoan bidaiatzea	 ferrari bat gidatzea
 piraguismoa egitea	 Hiri bat ezaquitzea	 puentinga egitea

**AZAROAREN 4tik 17ra ZURE EROSKETA TIKETAREKIN**

Zozketa - Azaroaren 19an - 21:00etan - Jubilatuen Txokoa



IGORREN EROSI



## MIKOLOGIA

# Estibaliz Sarrionandia: "Basoan egiten daberen funtzinoagaitik ezinbestekoak dira onddoak"

Perretxikoak preziazduak dira jateko gurean eta sasoi honetan otzara hartuta ibiltzen dira perretxikozaleak basoetan zehar. Bariedadea hainbestekoa izanda, batzuk jangarriak, beste batzuk ez eta batzuk hilgarriak be badiranez, jakinmin handia sortzean dabe eta erakusketak be ugaritu egiten dira urte sasoi honetan. Areatzan, Lemoan, Artean eta Zeberion, berbarako, onddoak sailkatuta ikusteko aukerea izan eta izango dogu.

Estibaliz Sarrionandia EHUen Botanika irakaslea da eta onddo komunitadeen inguruan egin eban bere tesia. Onddo eta perretxikoen garrantzia ulertuteko berarengana jo dau BEGITUK.



Estibaliz Sarrionandia.

**Erredakzinoa****Zer da perretxikoa eta zer onddoa?**

Perretxikoa onddo organismoaren parte bat da, ikusten doguna. Perretxikoa ikusten dogunean badakigu onddoa badagola sustratoan. Onddoaren gorputza

gehienetan ez dogu ikusten, baina ugaltzeko garaian perretxikoak sortzean dira. Honeek sagarrondoaren sagarrak modukoak dira. Perretxikoak esporak zabaltzen ditu onddoa ugaltzeko daiten. Ikusi ez arren, sustratoan dagoalako, onddo bat hektareatan zabaltzeko daiteke. Baina leku berean onddo

bat baino gehiago egoten da.

Perretxikoa ugaltzeko garaian agertzen dan onddoaren parte bat da.

**Zein da onddoaren garrantzia ikuspuntu ekologikotik?**

Onddoak ezinbestekoak dira basoan, sano funtzino ekologiko inportantea daukie eta. Onddo

guztiak behar dabe materia organikoa elikatzeko, hortik euren garrantzia. Hori modu desbardinatzen egiten dabe eta hiru onddo klase dagoz. Onddo saprobioak, hau da, materia organiko hila deskonposatu eta birziklatzen dabenak: eurak dira eta hostoak eta egurra, materia organikoa, materia inorganiko bihurtzen dabenak. Horreen artean pardilak eta txanpinoiak dagoz.

Bigarren klasea, mikorizikoak dira. Landareen zuztarrak eta onddoak egitura bat egiten dabe, organismo bientzat onuragarria dana, mikoriza. Egitura honetatik onddoak karbohidratikoak lorretzean dauz eta landareak be bai. Onddo zuria edo baltza, niskaloak eta gibelurdinak mikorizikoak dira.

Eta onddoen hirugarren klasea bizkarroiak dira. Honeek landare



Amanita muscaria.



Bisporella citrina.



Boletus edulis.



Chlorociborio aeruginascens.

Perretxikoa ugaltzeko garaian agertzen dan onddoaren parte bat da

Onddoak materia organikoa, inorganiko bihurtzen dabe

**Zugaitik BEGITUten dogu**  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre

INMOBILIARIA

Tfnoa: 94 631 80 04

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: [gorbeialde@gorbeialde.com](mailto:gorbeialde@gorbeialde.com)

expert ARRATIA

**Edova**

Lehendakari Agirre 16 - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 673 60 55  
E-posta: [expertarratia@cordevi.com](mailto:expertarratia@cordevi.com)

ENKARGUAK HARTZEAN DOGUZ  
**TALLER DE MANUALIDADES**  
laxcesteriadeareatzagane@gmail.com  
609 958 414 (Natalia)  
pillaranmartxondi@gmail.com  
641 991 884 (Pili)  
Areatza



bizien menpe bizi dira eta kalte eragiten deutsee landareoi. *Armillaria mellea*, barbarako, hil egiten dau arbola

Basoan egiten daben funtzinoagaitik ezinbestekoak dira onddoak egurra desegiteko eta landareen % 90k egiten dau sinbiosia onddoakaz.

**Arratiako basoetan zeintzuk dira topau geinkezan perretxikoak? Baso mota bako-txean zer? Zeintzuk dira jangarriak eta zeintzuk ez? Zein prezia duenak?**

Baso guztietan onddoak dagoz, baina baso guztietan ez dagoz espezie guztiak. Biologiaren ikuspuntutik perretxikoak jangarriak izan ala ez, ez dauka garrantziarik eta perretxikoen artean ezagutzen diran espezie guztietatik gitxi batzuk baino ez dira jangarriak edo interesekoak. Jenteak badaki hori, baita non zer topau. Holan, niskaloetan pinudietara joaten dira perretxikozaleak, saltsaperretxiko bila doazenak, barriz, hostozabalen basoetara joango dira... Baina, *Amanita muscaria* perretxiko haluzinogenoa pagadi zein pinudietan ikusi geinke.

**Zein egoeratan dagoz perretxikoak?**

Espezie asko desagertzen dagoz. Unibersidadeko ikerlari batzuk eta hainbat mikologia alkarteko kideren artean "zerrenda gorria" eratu dogu Euskal Herrian eta Kantabrian mehatxatuta dagozan espeziak jasota. Mehatxatuta dagozan espezieen artean, asko

dira egurretan hasi eta erabilten dabenak, baina mikorrizikoak be gitxiago ikusten dira, esaterako gibeldurina (*Russula virescens*) zerrenda horretan dago.

**Gipuzkoa eta Nafarroaren artean gatazka egoten da perretxikozale asko Nafarroara joaten dalako perretxiko bila. Zure ustez kontrolau egin behar da zenbat perretxiko hartzean diran leku bako-txean?**

Lehen esan dodan moduan, perretxikoa onddoaren frutua da eta frutu horretan espeziaren hazia dago, esporak. Esporak sortzean dabez indibiduo barriak. Haretxen ezkur ia guztiak jasoko bagenduz, ez litzateke ezkur nahikorik egongo haretx barriak sortu eta basoa mantenduteko. Gauza bera gertatzen da perretxikoakaz. Modan dago perretxikoak batzea eta jente asko ibiltzen da. Onddoak basoan daukan garrantziaren konzientzia zabaldu behar da kontroletatik harago. Dana dala, Araban kilo biko muga dago.

**Zelan dago perretxikoen gaineko kulturea? Sasoi baten, baserritarrak gehiago zira-nean, jente gehiagok ezagutzen zituan perretxikoak? Jankinduria horren transmisioa galdu egin da? ala kontrara, orain liburuetan, erakustaldietan eta abar agertzen diranez jenteak gehiago daki horretaz?**

Oso espezie gitxiren ezagutzea transmitidu da, hemen Euskal

Herrian jenteak oso espezie gitxi erabilten zitalako, behar bada. Baina esango neuke, beste herrialde askotan be holan dala. Gurean aitita-amamak gibeldurina ezagutzen eben, onddoak (*Boletus* generokoak) berandua egin ziran ezagunak. Bestalde, perretxiko bila joatea modan dago eta gehienak ezagutzeko errezak diran espezieak baino ez dabez jasoten, saltsaperretxikoak edo onddoak (*Boletus edulis* taldekoak) adibidez. Urretxak (*Russula cyanoxantha*) eta gibeldurinak (*Russula virescens*) betidanik perretxikotan ibili danak batzean ditu. Egia da be, kasu batzutan interesa handiagoa dala eta batzuek espezie gehiago ezagutzen dituela.

**Europako imajinario kolektiboan, elementu magikoak dira: gnomoak bizi dira euren, sorginak edabeak egiteko erabilten ditue... Euskal imajinarioan, ez ordea.**

Bai egia da. Sorginak, lamiak edo hartzak daukaguz gure imajinarioan. Gu mikofagoak gara eta antza danez aspalditik erabili dira perretxikoak, gainera garrantzitsuak izan dira eta ez bakarrik norberak jateko. Araban, XVIII. mendean adibidez, zergak ordaintzeko erabili izan dira perretxikoak, kasu haretan udabarriko ziza *Calocybe gambosa* hain zuzen be.

**Perretxikoak erabilten dira jateko ez dan beste zeozertarako? Botikak egiteko, berbarako?**

Bai. Onddoak hainbat gauzatarako erabili dira. Osasunaren gainean eraginik daukien espezie batzuk ikertzen dabiz zientzilariak. *Ganoderma* edo *Pleurotus* generokoen perretxikoak dira horreetako batzuk eta kantzerraren edo kolesterolaren kontra erabilgarriak diran aztertzen dabiz. Perretxikoa bera ez, baina papel industrian, egurraren lignina kentzeako horrenbeste kimiko erabili orde, zenbait onddo erabiltea be ikertzen dabiz. Bestalde, ogia, ardoa edo garagardoa, bera, ezingo geunkez lortu onddoen parte hartzerik gabe. Horreez gain, Euskal Herrian onddo haluzinogenoak be oso modan dagoz eta guztiok ezagutzen doguz mongiak (*Psilocybe semilanceata*).

**Perretxiko batzuk hilgarriak dira eta historian enperadoreak eta poderetsuak erabili ditue perretxikoak etsaiak hiltzeko. Cesar Augusto eta Claudio enperadoreai, esaterako, asko gustetan jakiezan perretxikoak.**


Bai. Kuletoaren izena, *Amanita caesarea*, hortik dator "cesar"etik. Oso gozoa eta Claudio enperadoreak oso gogoko eukan, eta kuletoaren orde, *Amanita phalloides* perretxiko hilgarria emon eutsien jateko eta pozoituta hil egin zan.

**Amaituteko, zuri gustetan jatzuz perretxikoak?**

Bai. Gitxi joaten naz perretxikotan, baina jatea gustetan jata, bai. Plantxan, arrautzakaz nahastuta, patatakaz edo perretxiko patean.



*Geastrum sessile.*



*Mycena renati.*



*Oudemansiella mucida.*

**APUNTA ZAITEZ!**

# ETXEKO KONPOSTAGAILUAK

Baserria, lorategia edo ortua badekozu hasi zeure konposta egiten hondakineta materia organikoagaz!

Azaroan, Mankomunitateak formakuntza tailerrak emango dauz Arratiako herri guztietan. ZAINDU GURE LURRA!

Emon izena: 94 631 17 17  
[www.arratia.net](http://www.arratia.net)

## FUTBOLA

**Arratia futbol taldeko neska jokalarien kanterea osotuten doa urtez urte**

Aurten, bere historian lehenengoz, edozein edadetako neska futbolariak Arratia futbol taldean jokatu ahal dabe. Urteetan saiatu dira arduradunak Benjaminetatik Nagusietara katea osotuten, neskak futboleko jokatu barik geratu ez daitezkan talderik ez dagoalako. Aurten Kadete mailako taldea sortu da eta Arratiak Euskal Ligan jokatu dauanez, 15 urteko neskak Kadetetik Nagusien taldera pasatu daitezke. Datorren urterako, Jubenil taldea osotuteko helburua daukie, baina aurten, lehenengoz, neskak ez dira Arratian jokatu barik geratuko eurentzat talderik ez dagoalako.

**Erredakzioa**

Naia Bilbao Arratia futbol taldearen neska taldeen koordinatzailearen ustez, Arratia futbol taldeak badauka etorkizuna eta sano ondo hasi dira neskak maila guztietan. Nagusien taldearen entrenatzailea be bada Naia Bilbao, Urtzi Ortuzarregaz batera.

**Aurten sortutako kadete taldeagaz, Arratia futbol talde-**

**ko neska jokalariek badaukie non jokatu edade guztietan, ezta?**

Bai. Txikerrenak, Benjaminak, neskak eta mutilak alkarregaz jokatu dabe. Gero, Alebinetan neska talde bat daukagu. Infantilak be badaukaguz eta aurten Kadete taldea sortu dogu. Jubenil maila ez daukagu, baina Nagusiak Euskal Ligan jokatu dabenaz, 15 urtetik gorako neskak

Nagusiak jokatu daikie.

Pozik gagoz ze aurten ez da geldituko neskato bat jokatu barik Arratian talderik ez eukiteagaitik. Baina, beste alde batetik, oso salto handia da Kadetetik Euskal Ligara. Euskal Ligan maila handia dago eta. Horregaitik interesgarria litzateke datorren urtean Jubenil taldea sortzea.

**Zelan dago Arratiako neska futbolarien kanterea?**



**Naia Bilbao.**

Ni sano pozik nago nesken kanterea zelan dagoan ikusita. Partidu gehienak ikusten dodaz eta ikusten da neskatoak maila batez datozala: txiki-txikitatik dabizela futboleko eta badakiela zertan dabizen ikusten da. Hori igarten da futbol zelaian.

Adibidez, lehenengo urtea da kadeteak daukaguzala eta primeran dabiz, partidu bat baino ez dabe galdu. Oso-oso ondo dabiz. Kanterea badago eta etorkizuna be bai.

**Nagusien taldean aldaketa asko egon dira aurten**

Bai. Jokalari askok itxi egin dabe futbola eta barriak hartu doguz. Barriak eta gazteak, eta talde barrira moldatuteko denporea beharko dabe. Zortzi bat jokalari ekarri doguz kanpotik. Hasikeran kostau jakun apur bat baina sortu da taldetxo eta hasi dira gorantz. Adibidez atzo (urri bigarrenak 27) lehenengoz kontra jokatu genduan eta irabazi egin genduan. Gerrea emongo dogu.

**Publikoaren aldetik zelango erantzuna daukazu?**

Publikoaren aldetik be gorakada bat igarri dot aurten. Harmailera begiratu eta jentea ikusten da. Eta ez bakarrik umeen partiduetan, baita nagusien partiduetan be. Zuzendaritzan be komentau dabe nabaritu dala aldaketa hori. Itxura batez apurka-apurka ba goaz harmailak betetzen.

Ilusino handia egiten deusta lortu dogunak, hainbeste neska futbol zelaian ikusteak. Ea danon artean lortzean dogun bultzada bat emotea nesken taldeai eta horretarako animau gurako neukez futboleko jokatzera gustetan jakien neska guztiak, hemen ikasi daikie-eta jokatu.

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOSERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA**  
Instalazio elektrikoak - Aberiak  
Telekomunikazioak  
Material elektrikoak  
  
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa  
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

**Recreativos Gubi S.L.**  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

*Los Chopos*  
neurria egindako armairuak  
Avda. Los Chopos, 33 (Nagar) Tel.: 94 630 40 94  
**Esposizioa eta fabrika Lemoan**  
Pozaeta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**Igorren ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

**\*KIRRU\* ILEAPANDEGIA**  
**SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
• 94 631 92 00

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

**Pinturas Arratia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

*Emilio Goitia banatzaile ofiziala*  
**San Miguel**  
Ardoak Edariak  
94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabellona (Igorre)

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ  
ZEIN ERDARAZ  
Baimonak: A1, A, B75, B  
Lehendakari Agirre 31  
Tfnoa: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@vokafonet.net

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendiolata, 3. 48330 LEMOIA Bizkaia  
Tel. 609 482 839 Fax. 609 290 717

**Pinturas Arratia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu  
Bixarra egin eta txukunduten dogu  
Elexalde, 20 Rober 630 743 543  
48.140 Igorre Manuel 661 848 793

**ZEKUTZE**  
JATETXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel.: 94 631 52 83  
zekutzejatetxe@hotmail.com

**indar**  
instalazio elektrikoak  
  
Bilbosola Industrialdea, pab. E 3-4  
48142 ARTEA - BIZKAIA  
t. 94 655 47 19  
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

umean moda  
**sein**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 IGORRE  
Tfnoa. 94 631 92 96 • seinmoda@hotmail.com

**AKITEGIA**  
**GAY & LORA**  
IGORRE

AHOLKULARITZA:  
LEGE-LAN ARLOAN  
**ZUZENBIDE**  
ZERGA ETA DERU KONSTUKTAN  
ONDASUN HIGIZTAN  
ASIGURUTAN  
Sabino Arana, 3 Tfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 74 01 - 48140 IGORRE

**axular**  
kultur elkartea  
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**ekin s.l.**  
CONSTRUCCIONES  
LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETAK  
GARRAIOAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTU SAREAK  
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK  
Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: obras@construccioneseekin.com

**L**  
**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta euskaraz zein erdaraz  
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: vmozal@vokafonet.net

## MENDIA



Goian Crespo, Zinca eta Ait Malek, behean Loyo, Agirrezabala eta Picas.  
Argazkiak: Amaia Larruzea.

## Ionut Zinca eta Leire Agirrezabala Gorbeia Suzien 2013ko irabazleak

### Erredakzioa

Bi aldiz egin da Gorbeia Suzien eta bietan jantzi dau Ionut Zinca gizonezkoen txapela. Aurten, urri bigarrenaren 19an, 02:28:27tan egin eban ibilbide osoa. Andrazkoetan, Leire Agirrezabalak (03:03:42) irabazi eban lasterketa.

Ionut Zinca-gaz batera Javier Crespo (02:29:36) eta Zaid Ait Malek (02:32:09) igo ziran podium-era.

Andrazkoai jagokienean, Elena Loyo (03:11:52) eta Nuria Picas sartu ziran bigarren eta hirugarren Zeanuriko helmugan hurrengo hurrengo.

Eguraldiak lagundu eban eta antolatzaileak lasterketearen balorazio positiboa egin eban. Lasterketearen dorsal guztiak banandu ziran, hau da 475, eta 425 ibiltari izan ziran parte hartu eban ak Gorbeia Suzien-en aurtengo edizinoan.

## ERRUGBIA

### Zekorrek martxan

Ainhoa Duñabeitia

Hasi da aurtengo denporaldia Arratiko Zekorrentzat eta partidu bi jokatu dabez arratiarrak honetzeroko, gainera emoitza nahiko politak lortu dabez. Lehenengoko norgehiagokea urri bigarrenaren hirugarren astegoienean jokatu eban Bera Beraren kontra Donostian. Partidu itzela izan zan Zekorrek jokatu ebena, 0-17 irabazi eban eta. Hurrengo asteko norgehiagokea etxean jokatu eban hilaren 26an Igorreko San Txisme zelaian. Tensino handiko partidua izan zan, nahiko bardinduta ibili ziran talde biak neurketa guztian zehar. Azken emoitzea hauxe: Arratiko Zekorrek 12, Baztan 12. Hurrengo partidua etxetik kanpo jokatuko dabe Zekorrek, Atletico San Sebastian taldearen kontra.

### Kadete taldea desagertu egin da

Kadete taldea osterara desagertu egin da aurten, talde hori osotuteko jokalaririk nahikorik egon ez dalako.



Arratiako Zekorrek.

## AIZKOREA

### Aitzol Atutxa bigarren Aizkolari Txapelaren Ligan

Irati Urien

Leitzan lehiatu zan Atutxa Jon Recondoren aurka, urri bigarrenaren 26an. Atzenengo jardunaldi horretan, 23'15" behar izan eban

dimoztarrak, bere lana amaitu eta garaipena lortuteko. Holan ba, Floren Nazabal nafarraren ostetik txapelarenorde gelditu da Atutxa II.a ligan, puntu baten aldeagaz. Orain, ligako lehenengo hirurak jokatuko dabe Kopako finala. Hiru aizkolari horreek Nazabal, Atutxa eta Lopez Azpilikueta dira. Finala hilaren 2an izango da Bilboko Esperanza frontoian, eguerdiko 12:00etan. Txapelketa horren ostean Euskal Herriko finalerako "buru belarri" entrenetan ibiliko dala esan deutso Atutxak BEGUTURI. Sei aizkolari onenak arituko diran ikuskizun horretaz Elgoibarren gozatu ahal izango da, abenduaren 8an.



Arratia futbol taldea.

## FUTBOLA

### Emoitza onak Arratia futbol taldeentzat

Ainhoa Duñabeitia

Urri bigarrenaren 26 eta 27ko astegoienean Arratia taldeko gizonezko nagusiak, partidu ona egin eban. 4 eta 0 irabazi eban Laramendiren kontra. Hurrengo norgehiagokea etxetik kanpo izango dabe. Nagu-

sien taldeko andrazkoak be, partidu ona egin eban 27an Urbietan. 4-2 irabazi irabazi eban Zarautzen kontra, sailkapenean lehenengo doan taldearen aurka hain zuzen be. Orain zortzigarren dagoz sailkapenean, lehenengoarengandik 5 puntura.

Aurtengo proiektu barriak, Arratia B-k osterara, astegoin horretan deskantsua izan eban. Aurrekoan osterara etxean jokatu eban Ermua-aren kontra. Azken emoitzea 1-2. Hurrengo neurketea zapatu goizean, hilak 2, izango dabe Loiuren aurka.

www.alkizabal.net  
alkizabal@alkizabal.net  
Zabalik 07:00 - 19:00

# ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA  
Amorebieta-Lemoa bidea  
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26  
48330 Lemoa (Bizkaia)



**KÄRCHER**  
Banatzaile ofiziala







• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.  
• Garraio zerbitzua.

## LEHIAKETEAK

**Beldur Barik lehiaketan lanak aurkezteko atzen eguna hilaren 15a****Erredakzioa**

Hilaren 15era arte bialdu daitezke lanak Beldur Barik lehiaketan parte hartzeako. Arratiako gazteak, euren lanak jarrera@beldurbarik.org helbidera bialduta, lehiaketa bikotxan hartzean dabe parte. Alde batetik, Bardinsareak Euskal Autonomia Erkidegoan antolatutakoan eta, bestetik, Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasan Zerbitzuak antolatutakoan.

Arratiako sariak jagokienean, sariok Lemoan bananduko dira hilaren 29an, 18:00etan Jubiladuen Etxearen gaineko aretoan. Kategoria bi dagoz 12 eta 17 urte artekoa eta 18 eta 26 urte artekoa eta kategoria bakotxean irabazleak 300 euroko saria izango dau. Lan honeetan, gazteak

gizon eta andren arteko desbardintasunagaz ez dagozala konforme eta aurre egin gura deusiela erakusten dabe.

**"Arzoa, arazorik ez dagoala pentsetea"**

Gazte askok ez dabela desbardintasuna antzematen dino Miren Urresti Mankomunitateko Bardintasan Teknikariak. Izan be, gaur egungo gazteak guztiz

normalizauta daukie, esaterako, hartu-emonetan egoten dan kontrola, "arzoa, arazorik ez dagoala pentsetea da, lehenengo arzoa dagoala onartu behar dalako, eta horixe da Zerbitzuetik landu eta zabaldu gura doguna: desbardintasunaz jabetzea, ostean aurre egiteko. Gazteai begira, desbardintasun egoerak agerian jarri gura doguz, gazteak errespetuan, bardintasunean eta autonomian bizi ahal izateko, nesken kasuan jabetzea landuz eta mutilen kasuan matxismoaren aurkako konpromisoa indartuz".

Hileon, "Mutil lagunak normala dana kontrolatzen nau" izeneko tailerra ipiniko dau martxan Bardintasan Zerbitzuak "kontrolaren normalizazioagaz amaituteko".



## BERTSOLARITZEA

**Maia eta Paya Arantzazun****Erredakzioa**

Hirugarren urtez jarraian, Arantzazuko Bildu kultur batzordeak San Martinetako bertso-afaria antolatuko dau. Aurten, Fredi Paya eta Jon Maia

izango dira bertsoetan. Zitea, Arantzazuko Montero tabernan izango da zehazkiaren 8an.

Ekitaldia 20:00etan hasiko da Montero tabernan, bertatik hasi eta heretik egingo dan triki-poteoagaz. Ostean, bederatziretan, afaria, bertsoak eta euskal giroa. Sarrerak, 18 eurotan dagoz salgai Igorreko Gau Loran, AZ Rugby Tabernan eta Axular Herriko Tabernan, eta Arantzazun Montero eta herriko tabernan.

## TAILERRA

**Marionetak egiteko tailerra martxan da****Erredakzioa**

Maurizia, Leon eta Fasio herri musikariak txotxongilo erraldoi bihurtzeko tailerra martxan da hilaren 1etik 10era. 16 urtetik gorako eskulanak gustuko dituan edonork hartu daie

parte, baita umeak be gurasoakaz joan ezker. Tailerra Areatzako Gazte Lekuko geletan da, goizeko 10:00etatik 14:00etara eta arrastiko 16:00etatik 20:00etara. Ordutegi horren barruan bakotzak ebazten dau noz parte hartu gura dauan. Dana dala, taldeetako persona kopurua ondo antolatu ahal izateko udal-txetan izena emotea komenidu da.

Txotxongiloak amaitutakoan, zehazkiaren 10ean kalejira bat egingo da Areatzatik zehar, tailerrean egindako txotxongilo honeek erakusteko.

## MUSIKEA

**Arratia Kantariren lehenengo edizinoa hilaren 9an Igorren****Irati Urien**

Zehazkiaren 9an, Arratiako sei bakarlarik, bikote eta taldek, Arratia Kantari izeneko ikuskizuna eskeiniko dabe Igorreko Kultur Etxean, arrastiko 20:00etan. Parte hartzean dauan talde bakotzak hiruna euskal abesti tradizional abestuko ditu.

Zeanuriko Esti eta Olatz bikote ezagunak emongo deutso hasikerea jaialdiari. Ander Gorospe Arratia Kantari ekimen honetako bultzatzaileetako baten txandea izango da gero eta bera entzuteko aukerea egongo da. Izan be, igorretarrak kantugintzan dihardu Kemen taldean hasi zanetik. Arratiako koruko tenore bakarlarik

dan Patxo Iturrate dimoztarraren txandea izango da hurrengo. Bediako Esti Asuak be hartuko dau parte ikuskizun honetan eta gero, Josu Garigorta, "Praktikantea" izango da oholtzan. Ekitaldia amaituteko Nik Khaos metal rock taldeak euskal abesti tradizional biren bersinoak joko ditu.

**Kantu-pote**

Zehazkiaren 8an osterako kantu-pote ekimena ipiniko dabe martxan Euskera Planeko kideak, abestiz alaitu gura dabe herria, belaunaldiz belaunaldi euskerea maitatua izan dan modu be-

rean: taldean abestuz. Igorreko kaleetan euskal kantak taldean abesteko tradizioa berreskuratu eta sustatuteko aprobetxau gura dabe.

Igorreko tabernak guneetan banandu dabez, izan be, nekez egin ahal izango dira kantu-pote bakar baten taberna guztiak. Hilean baten, hortaz, bigarren barikuetan, 20:00etan hasita Igorre Kantari kantu-potean parte hartzeko aukerea egongo da.

Hilaren 8an, Jubilatuen txokoa, Axular Herriko Taberna, Kukuma, Eguzki eta AZ Rugby Tabernan ibiliko dira kantuan igorretarrak.



## ZINE KLUBA

**Wes Anderson-eri eskeiniko deutso zikloa Igorreko zine klubak****Erredakzioa**

Zehazkiaren lehenengo hiru eguenetan Wes Anderson film zuzendariaren beste horrenbeste pelikula ikusteko aukerea egongo da Igorren. *Royal Tennenbaums* (2001), *Fantastic Mr. Fox* (2009) eta *Life Aquatic* (2004) dira filmok. Andersonek Los Angeles eta Torontoko kritikari alkarteak emondako bere zuzendari eta gidogile lanai sariak jaso ditu, beste erreko-kozimentu batzuen artean.

Wesley Wales "Wes" Anderson (Houston, 1969) zinemagile esta-

dubatuarra Owen Wilson-egaz batera gidogile onenai oscar sarirako hautagaia izan zan 2002an Igorren zehazkiaren 7an ikusi ahal izango dan pelikulearen gidoiagaitik. Gene Hackman, Anjelica Huston, Ben Stiller, Luke Wilson, Gwyneth Paltrow, Owen Wilson, Danny Glover eta Bill Murray dira pelikula honetako antzezleak.

**Animazioa film bigarren saioan**

Hurrengo egunean, zehazkiaren 14, Roal Dahlen umeentzako liburu baten oinarritutako animazi-

nozko pelikula bat ekarriko dabe Igorreko zine klubera. Pelikula honen zuzendariak Wes Anderson eta Noah Baumbach izan ziran.

Zikloa zarratuko dauan hirugarren filma, *Life Aquatic*, zehazkiaren 21ean eskeiniko dabe. Wes Andersonek ia beti antzezle berberak egiten dau behar eta pelikula honetan be Bill Murray, Owen Wilson, Cate Blanchett, Anjelica Huston eta Willen Dafoe dira protagonistak.

**Wes Anderson.**

## LEHIAKETEAK

**Film laburren lehiaketea antolatu dau Igorren Udalak****Erredakzioa**

Euskerazko film laburrak sortzea bultzatzeko asmoz Igorreko Udalak "Luzetu barik" lehiaketea ipini dau martxan. Filmeen gehieneko iraupena 15 minutukoa izango da, kredituak barne eta gazteentzako atalean minutu batetik gorako grabazioak aurkeztu ahal izango dira, baita eskuko telefonoagaz grabatutakoak be. Lanok aurkezteko epea zehazkiaren 30ean amaituten da.

Lanak Igorreko udaletxean edo Kultur Etxeko harreran aurkeztu

behar dira. Egile gazteentzako atala be badauka lehiaketa honen.

**Sariak**

Epaimahaia zinema, kultura eta ikus-entzunezkoetan adituak osatuko dabe. Film laburrik onenak 800 euroko saria izango dau; egile barri baten lanik onenak, beste 800 euro; Arratiako egileen lanik onenak 300 euro eta egile gazte baten (12 eta 25 urte bitartekoa) lanik onenak 500 euro. Sari guztiak legez jagokiezan zerga-atxiki-pena izango dabe.

## DOMU SANTU

# Halloween eta Domu Santu Eguna

Angel Larrea Beobide

### Heriotzea

Gaurko euskaldunen artean era desbardinatua ulertzen da heriotzea. Gizarte tradizionalan, oster, tragedia izaten zuten familiarentzat, batez be hildako pertsona zaharra ez bazan. Gainera, erlijio kristinauaren eragina handia zenez, eleizeak inposatu egiten eban urteetako dolu edo lutua mantentzea (kasurako, 1936ko gerraostean hiru urte luze izaten zuten) eta horrek ekarrien zamea astuna zuten: mezatarak joan beharra, "olata" deituriko ogia eroatea astelehenero parrokiara eta eleizearen barruan familiaren hilobia edo sepultura patxadaz mantentzea.

Hildakoak gogoratzea, hildakoen memoria edo hildakoi eguneko kultura hildakoen eguna- oso garrantzitsua izan da gizarte askotan: japoniar kultura adibidez, *shinto* erlijio nazionalaren oinarria horixe da.

Antropologiak ematen deuskun ikuspegitik begiratuta, ezinbestekoa da, gizarte laikoetan be bai, hildakoak gogoratzeko ospakizunak egitea eta egotea. Hildakoak gizartearen erreferentzia, gure memoria, gure aurrekoak izan diralako.

### Halloween

Zer da *Halloween*? Eskoziako gaeltiko hizkuntzan, Domu Santu Egunaren bezperea da; Sorginen Gaua eta Difuntuen Gaua izenakaz be ezagutzen dana. *Halloween* jaiaren zuztarrak zeltarren kalendario edo egutegi tradizionalan oinarrituta dagoz.

*Halloween* gero eta ezagunagoa

da gure gizarte globalizatuan. Baina *Halloween* azalekoa da: jaiaren estetika eta ezaugarri entretenigarriak kopietan dira bakarrik. Ospatzen dan jaiak ez dau esan gura heriotzearen gaineko hausnarkarik egiten danik. Erakargarria da gazteentzat, asko gainera, zineman eta telebistan agertzen dalako. Moda hori iparramerikarra da gehienbat, oso zabaldua dagoalako iparramerikarren kultura, jatorriz Irlandako kultura zeltarra oinarria izan eban arren.

*Halloween* jaiaren zaleak moztortu egiten dira (buruan kalabazak erabiliz), suteak egiten dabez, etxe sorginduak bisitetan dabez, bildurrezko istorioak irakurten dabez, film bildurgarriak ikusten dabez... Eta galdetzen badogu zertarako diran, esate baterako, moztorroak? Mamuak eta izaki gaizkileak uxatuteko! -esango deuskue barreka. Gaur egun jai dibertigarria baino ez da. Euskal Herrian be *Halloween* antzeko jaiak ospatu izan da, nabo eta kalabazaren moztorroak.

Hasikera baten, *Halloween* beste gauza bat zan. Bezperea zala esan dogu. Zerena? Zeltar egutegian, zehazkiaren 1a *Samhain* zan, hau da, difuntuen jai eguna; orduan, beste munduaren ateak, lurrazpiko munduarenak eta zeltar urte barrierenak be zabaltzen ziran; bezperan, gauean ospatzen zan *Halloween*, urte zaharren azken unetan. Ospakizunak arbola sakratu baten inguruan egiten ziran, eta arbola hori hagina zan. *Halloween* edo "bezperea", beraz, haginaren eguna zan.

### Hagina

Hagina "arimen garraioa" da: lurraz-

piko mundura sartzeko, baita gure arbasoen lurralde mitikora be. Haginak gaueko iluna, negua, infernua, inkonzientea eta loa sinbolizatzen ditu. Bere misterioa hauxe da: heriotzara pasetako ateak zabaltzen deuskuz. Hagina da kanposantu askotako -hilerri zaharretan ikusten da sarri- arbola totemikoa, eta zelan ez, heriotzearen arborea.

Egutegi zeltarra zirkulu baten erara irudikatzen da, heriotzeari bizitzak jarraituz. Eta bizidunen eta hildakoen mundu bien arteko bideturtean bizi da hagina. Bere lekua errespetuzko lekua izaten da, bertan bizitzarako eta heriotzarako erri sakratuak ospatzen dira-eta.

### Domu Santu Eguna

Zergaitik ospatzen da Domu Santu Eguna zehazkiaren 1ean? Erdi Aroko aldi baten, VIII. eta IX. mendeetan hain zuzen be, paganismoa oso indartsua zan. Orduko garaiko Aita Santuak zera erabagi eban: Domu Santu Eguna jai kristinau handia pasetea maiatzaren 13tik zehazkiaren 1era, jai paganoen orde. Eleiza Ortodoxoak, barriz, oraindino konserbetan dau Domu Santu Eguna udabarriko jai egun lez.

Domu Santu Egunagaz nahastetxo dago, eta argitu behar da: Zehazkiaren 1ean Eleiza Katolikoak ospatzen dauan jai Santu guztien ohorez da, egun gozoa eta pozgarria. Horrexegaitik, liturgian erabiltzen dan kolorea zuria da. Domu Santu bigarren Difuntuen Arimen Eguna izaten da, otoi egiteko eta serio egoteko eguna. Beraz, zehazkiaren 2a izan behar da difuntuen memoria gogora ekarteko edo kanposantuak bisitetako eguna, baina



Areartzako ortusantua.

halanda be Domu Santu jai eguna aprobetxetan da ortusantuetara joateko.

Zergaitik ospatzen da Arimen Eguna zehazkiaren 2an? Uda goieneko solstizioa urri lehenengoaren 22an izaten da, berrogei egun beranduago zehazkiaren 2a da. Gure arbasoen usteai jarraituz, orduan, natura lotan edo hilda lez gelditzen da. Sasoi iluna, une ezin egokiagoa hildakoentzako eguna jartzeko.

Gure artean tradizioa da zehazkiaren 2an hildakoen arimen aldeko mezea egotea kanposantuko kaperan; baita be, egun berean edo Domu Santu Egunean kanposantuak bisitetea, eta loreak eroatea hilobietara. Loreen artean, gehien ikusten dira krabelinak, larrosak, hilen lorak edo angeru lorak be deitzean diranak eta kanposantuko lorak (krisantemo edo urrelilak be deituak). Domu Santu jai egunaren

inguruan kanposantuak txukundu egiten dira, familien hilobiak, nitxoak, panteoiak edo hildakoen hazurrak itxeko hobiak apaintzen dira.

Lehenago Arratian, Urkiolako Santutegira joaten zan, antxinako koplak zahar batek esaten dauan moduan:

"Urkiolara joan,  
Domu Santuruz...".

Domu Santuen izeneko ermitea egoan lehenago Diman, gaur egun Santuru izeneko baserria da.

Europar zehar oso zabal egon dan eta dagoan sinismena zera da: arimak deslai mobiduten ei dira, eta Domu Santu Egunean difuntuak bizidunen mundura bueltatzen dira. Ondorioz, praktika edo ohitura batzuk sortu dira familiarteko difuntu hareei laguntzeko: itxi etxeko ateak zabalik gauean, tximiniaren ondoan edo behesuan txingarrik amatau barik itxi difuntu bisitariak berotu daitezkan, edo zeozer jateko itxi.

## DUNBA

# Lehen Mundu Gerra

### Arratia eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak

Arratia eskolako hirugarren zikloko ikasleak proiekturako gaia aukeratu behar izan genduan. Hainbat gairen artean, Lehen Mundu Gerra aukeratu genduan. Gure jakin-mina biztu zan gutariko batek telebistako barrietan eta egunkarian Siriako eta Egiptoko gerren irudiak ikusi zitualako. Hortik abiatuta gogoratu eban bere aitak, zelan kontetan eban berak bizi izandakoa hemengo gudan. Azkenik gelan berba eginez bururatu jakun goian aitaturako gaia jorratzea interesgarria

izango litzatekela.

Lehen mundu gerra 1914ko abuztuaren 4an hasi zan eta 1918ko zehazkiaren 11n amaitu zan. Europako estadien arteko lehia eta tirabirak, ekonomia arrazoiak, kolonialismoak eta nazionalismoen gatazkak Balkanetan, izan ziran gerra ha eragin eban arrazoiak. Baina gerra biztu eban txinparte, "Esku Baltza" talde sekretuko serbiar batek, Austria-Hungariako artxidukea eta haren andrearen hilketea izan zan, 1914ko bagilaren 28an Sarajevon gertatu zana.

Gerra bildurgarri honen ondorioz 10 milioe persona hilda, 21



Lehen Mundu Gerrako irudia.

milioe persona inguru zaurituta eta 8 milioe persona inguru preso geratu ziran.

Honez gainera Europako mapa aldatu egin zan eta andreari ga-

rrantzi handiagoa emon eutsien.

Hasikera baten, gaia landuten hasi ginanean, armak, bonbak, gerra bera oso erakargarria iruditu jakun. Informazioa irakurri



dogun heinean gure eretxia aldatu egin da. Holan konturatu gara gerran ez dauala inork irabazten. Talde guztietan hildakoak, zauritutakoak, preso asko eta urteetan familien arteko ikusezina egoten diralako. Gainera, inguru guztiko eraikuntzak apurtuta geratzen dira, herri osoak desagertuz; lurra kutsatuta eta landatu ezina denporaldi baterako. Azkenik, istilu aurreko bizimodu egoerara bueltetako lan asko eta gogor egin behar dala.

## AGENDEA

ZEMENDIA  
IGORRE

Hile osoan, "Pop gogorra Euskal Herrian egina" erakusketea Kultur Etxeko Erakusketa Gelan.



## ARRATIA

Hilaren 14ra arte, Nafarroa hegoaldeko euskalgintzeari lagunduteko 50 euroko ortuari saskiak eskatu daitezke Zeanuriko Txoko Sagarnan, Igorreko Gau Loran, AEKn eta Areatzako The Quiet Corner tabernan edo Igitioe baseritarrai eskatuta.

ZEMENDIAK 1  
AREATZA

10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, hilaren 10era arte, marioneta erraldoiak egiteko tailerra. Gaztelekuko geletan. Parte hartzeako Udalean izena emotea komenidatu da.

## ARTEA

13:00etan, Kalez kale abesten. Begi Argiak korala. Plazatik urtenda.

## DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" Herriak antolatutako errepresaliaduen aldeko konzentrazioa herriko plazan. Konzentrazioan Arratiako Harrera alkartearen aurkezpena egingo da.

ZEMENDIAK 2  
IGORRE

12:00etan goiko plazan "Askatasunaren

alde bizia galdu ebenen omenez", Timoteo Atutxa Petralandari omenaldia. Hilketearren 76. urteurrena da aurten. 36ko altxamendu frankistan, 1937ko urriaren 26an Derion afusilatu eben Igorrekoa.

22:00etan, zinea *Elysium* Lasarte Aretuan.

## LEMOA

Aurrekontu parte hartzaileetako auzo batzarrak. 11:00etan, Haizean. 11:30ean, Bolunburun. 12:30ean, Mendietan. 13:00etan, Zubiaren eta Durundion. 13:30ean, Arantzen.

ZEMENDIAK 3  
AREATZA

10:30ean, Bilboko Udal Banda Euskalduna Jauregian ikusteko urtekerea. Eleiz portalean. AKKBK antolatuta.

## IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Aviones*. 19:30ean, zinea *Elysium* Lasarte Aretuan.

## LEMOA

Aurrekontu parte hartzaileetako auzo batzarrak. 11:00etan Larrabeitin. 11:30ean, Iturritzen. 12:00etan, Elorrian.

ZEMENDIAK 7  
IGORRE

20:00etan, zine kluba. *Royal Tennenbaums* (Wes Anderson, 2001) Lasarte Aretuan.

## LEMOA

19:00etan, Genero bardintasunerako diagnostikoaren aurkezpena eta etorkizunerako lan ildoaren hausnarketea. Jubiladu etxearen gaineko aretoan.

ZEMENDIAK 8  
ARANTZAZU

20:00etan, triki-poteoa Montero tabernatik hasita. 21:00etan, bertso-afaria. Bertsolariak: Fredi Paya eta Jon Maia. Montero tabernan.

## IGORRE

20:00etan, piano kontzertua Arrano Zuria euskal-poloniar kultur elkarteak antolatuta. Poloniaren independentzia jaialdi nazionala. Pianojolea: Adrian Hodor. Lasarte Aretuan.



## LEMOA

Aurrekontu parte hartzaileetako auzo batzarrak. 17:00etan, Txibotegin/Mendibilen. 17:45ean, Landibizen.

ZEMENDIAK 9  
DIMA

09:00etatik 14:00etara, "201 baietz" kanpainarako heritarrai argazkiak aterako deusez ludotekan.

## IGORRE

20:00etan, Arratia Kantari Kultur Etxean.

## LEMOA



## Arratia Villaro aurretik

Villaro uribildua sortu baino 500 urte aurreragoko Arratia deskubriduko dabe zehazkiaren 7an, arrastiko 19:00etan, Areatzako Udal Aretuan Juanjo Hidalgo historialariak emongo dauan berbaldira hurreratzan diranak. IX. Mendean Arratian, "herrixkak egozan, etxeto xumez eginak, eta bakotzak bere eleiza propioa eukan, bertan uztaeren soberakinak gordeteko eta etxeko hildakoiak lurra emoteko lekua" be baegoan hizlariaren arabera.

Juanjo Hidalgo LHUIko batxilergo-irakaslea eta Aunia kultura alkarteko historialaria eta arkeologoa da. Auniaren eskutik, Untzuetako gazteluaren aztarnak (2006-2007) berreskuratu ebezan, eta 2009 urtetik aurrera Amurion dagoan Elexazar izeneko erromatar garaiko aztarnategiaren zuzendaria da. Goi Erdi Aroko biztanle-lekuak ikertzen ditu, beste ikergai batzuen artean.

## IRAGARKI LABURRAK

SALDU  
SALGAI

Tabernarako kafeterea eta molinilloa salgai. Gaggia Nera markakoa. 600 eurotan. 619 728 188 (Unai).

## TXAKURKUMEAK SALGAI

Hile biko 4 txakurkume saltzean dodaz. Artzai txakurrak dira. 25 eurotan zure esku! Telefonoa 616 440 185.

## MODULOAK SALGAI

Moduloa saltzean da. 3 logela. Santillana del Mar kanpinean kokatuta. 16.000€. Telefonoa 606 772 896 (Mari Cruz).

## PISUA SALGAI ZEANURIN

90 metro karratu ditu. Hiru logela. PVCko bentana barriak. Barrikuntzak behar dauz baina sartu daitezke biziten. 98.000 euro. Interesdunak deitu 618 557 363 telefonora.

ETXEA ALOKATZEKO EDO  
SALTZEKO

Urkuzun (Igorre). Kamarea, bizilekua, kortea eta garajea daukaz. Margari 94 673 61 80.

## DANERIK

## DESBROZADOREA BEHAR DOGU

Baten batek erabili barik badauka ipini

kontaktuan mesedez. Bardin da zaharra bada. Eider: 685 70 71 76 orekuarte@gmail.com.

## AREATZAN ETXEA ALOKAIKUAN

180 m<sup>2</sup> dituan etxe erreformatu bat alokairuan, erosteko aukereagaz. Lau solairukoa: 3 logela, 2 bainugela, txokoa, kamarea eta terrazeta. 656 716 560.

## INGELESEZKO ESKOLAK

Ingelesezko eskola partikularak emoten dodaz Bedian eta Lemoan. Telefonoa 637 754 981.

## GELA ALOKATZEN DA AREATZAN

Gela alokatuten da, pisu konpartiduan, Areatzako alde zaharrean, pisu barri baten. 170 € + gastuak erdibana. Etxea ikusi edo zalantzak argitzeko deitu/ideatu: 650 009 391.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *La gran familia española* filmarako.

Eneritz Atutxa (Lemoa)  
Miren Maiz (Dima)



**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Baso sorgindua* antzezlanerako.

Eñaut Intxaurraga (Zeanuri)  
Rafa Ugalde (Dima)



**g** Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 11


urte eta

ehundaka

lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Bizkaiko udalerria. Deun.
- 2.- Garoa...-mika, eztabaida. 3.- Astoari mobiduteko esaten joko. Zidarra.
- 4.- Kontua, oharmen. 5.- Letra mutua. Etorri! 6.- Behiak emoten dau. Bat erromatar. 7.- Galioa. Azkar.
- 8.- Andrazkoen izena. Uretan hil. 9.- Lo asko egiten dauana. Edabe garbi.

### GOITIK BEHERA

- 1.- Ea. Hego. 2.- Ahur, eskubarru. Oso. 3.- Mesedez. Kontuz.
- 4.- Konsonantea. Kiskaldua. Erdiko bokala. 5.- Min daukagunean. Edabe.
- 6.- Ezetz esan. Helburu. 7.- Antojua. Baten bat.



Topau Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartzean dabizan 7 bertsolariren izenak.

I	R	T	U	O	N	D	O	A	L
O	D	N	O	T	S	U	L	E	A
K	I	E	B	O	S	O	R	T	O
E	U	N	A	T	E	O	Z	K	A
R	A	B	I	D	E	R	U	L	E
I	F	E	R	N	A	N	D	E	Z
P	A	I	T	A	R	U	A	N	E
O	S	T	I	R	A	L	I	B	A
L	E	A	A	R	U	T	X	A	L
U	D	A	N	E	R	O	Z	E	K
N	E	A	B	A	S	O	L	O	Z
E	Z	O	M	A	G	A	R	I	A
H	O	L	I	Z	T	U	R	I	A
O	D	A	N	T	A	K	O	G	I
B	P	B	A	R	T	O	L	A	H

# AKI MI KO

Zorrozki lo



**HERRIKO BENTA**  
HOSTAL  
HERRIKO PLAZA,  
48142 ARTEA (Bizkaia)  
Tel. 94 631 72 56

**bbk**

**Gure Ikastetxeak**  
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatekoa, herrikoa

- Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre
- Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea
- Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
- I. Zubizarreta HI**  
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre
- Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

**arratiako instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu  
**Fisioterapia Zentroa Igorre**  
Elexalde 4  
Telefonoa 94 631 55 08

**Andra Mari Klinikea**  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1 Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

**Kendall Languages**

- A, B eta C perfil linguistikoen lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz  
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea

Elexalde 4 behea · 48.140 Igorre (Bizkaia) · 94 657 73 48 · www.kendall-languages.com

## RITXAR BACETE

**"Pribilegioai uko egitean handitu egiten dira gure ongizatea eta bizi kalidatea"**

Ritxar Bacete Gonzalez Emakunderen Gizonduz Ekimenaren inguruan dabil beharrean formadore moduan azkeneko zazpi urteotan. Gizarte Langilea, antropologoa eta generoko ikerketan eta feminismoan aditua be bada. Urrietan Igorren egon zan gizon eta andren arteko bardintasunaren gaineko tailerra emoten gizonetzkoai.

**Erredakzioa****Noz hasi zinan bardintasunaren alde burrukan eta burruka horretan gizonak inplikau guran?**

Orain dala urte asko eta txiri-txiri. Neure bizitzaren gaineko hausnarketak egiten hasi nintzan, eta hausnarketa horreek hainbat andra "indartsugaz", gizon "sensible" eta baita be irakurgaiakaz buztartu zirala esango neuke. Aurrerago jakin neban Jerezen maskulinotasunari buruzko jardunaldiak egiten zirala eta motxilea hartu eta hara joatea ebatzi neban; eta ebatzi horrek bizitza aldatu eustan. 2006. urtea zan.

**Igorren emon zenduan ikastaro bat urri bigarrean. Zenbat gizonak hartu eben parte?**

Emakunderen Gizonduz Ekimenaren bitartez Igorren emon genduan kursoan 12 lagunek parte hartu eben. Baina kasu honetan inportanteena ez da zenbakia baizik eta egin ziran erreflexinoak eta sortu zan konpromisoa aurrera jarraitzeko.

Gizon taldeetan danetarik dago: gizon feministak, erresistentiak, "majoak" baina ez inplikauak, baina orokorrean esan daikegu Igorreko tailerrera hurreratu ziranak interes berezia eukiela, eta saioa amaitutakoan, uste dot aldaketa txiki bat igarri zala. Bitxia be izan zan zinegotzi eta alkateen parte hartzeagaz konte-tea, nahiz eta kursoaren antolatzaile guztiak andrak izan... hori bitxia baina adierazgarria da.

**Bardintasuna lortzeako ezinbestekoa da gizonen inplikazioa, populazioaren erdia dira-ta. Gizonak euren pribilegioai uko egitea justiziaren izenean ez da erreza izango. Nondik jo behar da horretarako?**

Argi dago, aldaketa estruktural bat lortzeako bardintasunaren bidean, gizonen parte hartzea edo aldaketa beharrezkoa dala, bardintasunaren alde, jakina.

Bardintasunaren aldeko Gizonen Mobimentuak ez dauka, bere abiapuntuan, bape be bentajarik baina pribilegioai uko egitean, handitu egiten dira gure ongizatea eta bizitza kalidatea: podere ekintza bakotzak insatisfakzioa sortzean dau, bildurra, bakardatea, isolamentua. Idea hori naturalizat jotean, ezinezkoa egiten da generoari jagokonez gizartean ikuspegi mugatzailea dagoala ulertutea. Gizonai eragiten deutseen genero arazoak egon badagoz: zazpi urte gitxiago bizi gara, delituen % 95en egileak gara, arriskuak sortzean doguz (auto istripuak, drogen kontsumoa...). Arazo horreek guztiak eza-gutza emotean, politika zehatzak jarriko dira martxan, eta horrek gizarte osoari egingo deuto mesede. Baina, ez dogu ahaztu behar bardintasunaren aldeko gizonen mobimentuaren oinarriko helburuetako bat gizonak andren aurkako indarkeriaren kontrako konpromiso sendo eta aktiboa hartzea dala.

**Zeintzuk dira topatzen dozuzan erresistentziak? Bene-benetan gizonak bardintasuna gura dabe?**

Celia Amoros filosofa feministak planteetan dauan legez, "noz ikusi da historian zehar pribilegioak daukiezanan, bat-batean presino barik ezetz esatea eta pribilegio horreei uko egitea?". Azken finean, bardintanunak gizonentzat pribilegioak eta poderea galtzea suposatzen dau.

Baina hainbat faktore dagoz, gizonak eragiten dituenak konzientzia hartzera eta aldaketa bide bat has-

teko. Alde batetik, legediak aldaketea eragin daike. Europako iparraldeko herrialdeetan, adibidez, aspaldi ipini zitu en martxan gizonentzako aitatasun baimenak, eta konturatu dira horrek gizonen eta seme-alaben zaintzaren arteko lotura estutu dauala, eta beraz, esparru erreproduktiboagazko lotura be handiagoa dala. Bestalde, krisi personaletako faktoreak be badagoz: gizon batzuek, bikotekideagazko banaketan, osasun arazoan edo ezustean heldutako bestelako aldaketen ondorioz, euren bizimodua eta lehentasunak berraztertzen ditue. Aitatasuna be aldaketarako une garrantzitsua da, lehenengo haurragaz batik bat. Eta azkenik, idea feministakazko hartu-emon be kontuan hartu beharreko faktore bat da; gizon parekideenak hartu-emon hori izan dabe, euren bikotekideak feministak izan diralako, edo gaia ikertu dabelako.

**Jose Saramago zanak esaten eban andren kontrako indarkeria gizonen arazo bat dala eta hau bakarrik amaituko dala gizonak indarkeria egiteari ixten deusienean.**

Oinarrian ados nago ideagaz. Nire ustez gizonok aktiboagoak izan behar gara indarkeria matxistaren aurka eta genero tradizional maskulinoari jagokozan balioak, rolak eta kultura dekonstruitzeko lanean parte hartu beharko geunke, demokraziaren aurkako da-eta hori guztia. Horrek gizarte mailako lana eskatzen dau, gai horreek gizonen arteko alkarrizketetan sartzea, ispiluari begiratu eta barruan daukagun alien matxista hori identifiketea eta suntsitzea, eta abar.

**Zelan ikusten dozu egoerea Arratian?**

Hemen be desbardintanunen egoerea dago, argi eta garbi: indar-

keria matxista oraindino be emoten da, andrak soldata bajuagoak daukiez, lanpostu prekarioagoak, poderearen arloan presentzia txikiagoa... Gizonok inplikazio eta konpromiso falta izaten jarraitzen dogu zaintzaren arloan. Andrak arlo publikoak eskuratzeko hasitako iraultza baketsuak ez dau alderantzizko mobimenturik biztu, akordio faltsu antzerako bat baino. Gizonok sinistu egin dogu bardintanuna eskubide eta balio kolektiboa dala dinoan diskursoa, baina eguneroko bizitzan ez dogu praktikan ipinten. Gutako batek garbigailua ipinten dauanean, inor ez da zorientzeko agertzen, eta gu ez gagoz laudorio ezera ohituta. Inpliketan gara mesede egiten deuskun horretan. Baina bizilagunen alkatereko, futbol taldeko edota herrialde bateko lehendakari izateko, beste norbaitek hartu behar dau zaintzaren arloan daukagun erantzukizuna. Andrak esplotetan jarraitu behar dogu podere egiturak manteniduteko.

**Zer dira maskulinitate barriak? Beharrezkoa zan maskulinitateak sortzea? Generoak desegitea da helburua ala uste dozu generoak ez dirala inoz desegin-go?**

Maskulinitate barriak zaharrak dira. Askotan erabili egin da izen hau gizon profeminista edo antisexistai izena emoteko. Baina niri neuri ez jata bape be gustetan. Bultzatzen doguna ez da eredu barri bat sortzea baizik eta, eredu eta persona askeak lortzea.

Galeanok planteetan eban moduan, generoak desegitea da gure utopia. Baina ez dago errezeta magikorik. Generoak desegitea gatxa izango da, baina aldatzea eta malgutztea hori bai lortzean gabiz.

**Posmatxismoaren estrategia****barriak be emoten dozuz eza-gutza zeure ikastaroetan. Izan be, matxismoa orain askotan "feminismoz" janzen da gizartean Troiako zaldi baten moduan sartzeako, bere helburua oso modu eraginkorrean lortuz. Zer pentsetan dabe gizonak horretaz?**

Posmatxismo izugarria ikusten dogu. Matxismo tradizionala eta feminismoak bururatzen dauan bardintanunaren aldeko burruka aktiboaren tartean geratzen dan jarkerea ordezkaten dau. Zilegitasunaz berba egiten dabe euren neutraltasuna defendatuz, jarkera ideologikoa ukatuz. Guzientzat ona danaz egiten dabe berba eta zientifismora jotzen dabe, ustez enpirikoak diran elementu eta datuakaz euren eretxiak zilegi bihurtuz. Adibide garbi bat SAP (Síndrome de Alienación Parental) litzateke: suposatzen da kontzeptu zientifikoa dala, eta ez idea edo asmakizun bat. Eta alineazio parentalaz berba egiten dabe. Baina kurioa bada be, "ama gaiztoaren sindromea" sortzean da, eta praktikan oso erreza da amari egozte, bera dalako zaintza izan ohi dauana. Holan, diskursoa da ama gaiztoa dala, aitak lan eta lan egin dauan bitartean (etxetik kanpo, jakina), eta eskubide barik geratzen da ama hori.

**Belaunaldi barriak bardintanunaren itxurakerian bizi dira?**

Moral bikotxa irakasten deutsegu: bardintanunaren diskursoa denporearen benetako erabilerearen aurrean; hau da, zer egin behar dan. Kontua da neskak bai ulertu dabela bardintanuna praktikan negoziatzina dala, eta horrek erronka interesgarri baten aurrean jartzen ditu mutilak: aldatzeko behararen aurrean. Hori holan, mutilak be bardintanunaren aldeko hautua egiteko ahaleginak egiten doguz.

**www.begitu.org**

publizidadea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

**Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
begitu@topagunea.com**

